

Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 26. saioa

Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 26

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugaryhora	2026ko otsailak 17 Loretope aretoa 16:00etan
Amaiera ordua Hora de finalización	18:22

GAI ZERREDA: ORDENEL DÍA:

1. Aurreko akta onartzea.
2. Osasun eta Ingurumen Saileko aurrekontuak.
3. Artikutzako presaren zati bat eraisteko lanen aurrerapena eta kiropteroei buruzko azterlana.
4. Hondakinak: Ehungintza, GEEH eta tamaina handiko hondakinen kudeaketaren mapa eta erronkak.
5. Galde-eskeak.

1. Aprobación del acta anterior.
2. Presupuestos del Departamento de Sanidad y Medio Ambiente.
3. Avance de los trabajos de ejecución parcial de la presa de Artikutza y estudio de quirópteros.
4. Residuos: mapa y retos de la industria textil, RAEE y gestión de residuos voluminosos.
5. Ruegos y preguntas.

BILERAN PARTE HARTU DUTE: HANASISTIDOALASESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIADEL CONSEJO	Iñigo García Villanueva Aniztasuna, Inklusioa eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria Concejal delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	Vanesa Vélez de Pablos (PP) Markel Ormazabal (Bildu)

KONTSEILUKO KIDEAK VOCALÉS DEL CONSEJO	1. Kalapie 2. EGUZKI 3. Ekologistak martxan 4. Cristina Enea Fundazioa 5. Emaus Gizarte Fundazioa 6. Aranzadi 7. Azti 8. Seobirdlife (SEO)
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	EAJ / PNV
UDALTEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Ana Juaristi Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua Sergio Fernández (Osasuna eta Ingurumeneko zuzendaria)
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Emakumezkoak / Mujeres = 4 Gizonezkoak / Hombres = 10
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Osasun eta Ingurumeneko teknikaria (Goretti Zugasti) ingurumena@donostia.eus

Saioaren bilakaera:

Desarrollo de la sesión:

1. Kontseiluko lehendakariaren sarrera

Lehendakariak batzordekide guztiak agurtu ditu eta bilerari hasiera eman dio.

1. Introducción del Presidente del Consejo

El presidente saluda a todos/as los/las vocales y comienza la reunión.

2. Aurreko akta onartzea

Zinegotziak airearen kalitateari buruzko protokoloaren onarpen-data zuzentzeko eskatu du, 2026aren amaiera adierazten baitzen, eta ez 2025aren amaiera.

Eguzkiko ordezkariak hitza hartu du eta kexa agertu du Agitiko kalaren inguruan. Gogorarazi du azken bileran zinegotziari kalaren berreskurapenaren defentsa eskatu ziotela, URArekin eta Eusko Jaurlaritzarekin egitekoak ziren bileretan. Osoko Bilkuran, 48 ordu baino gutxiagoan, zinegotziaren boza adierazi zituen asmoen aurkakoa izan zela kritikatu du. Jarrera aldaketa kritikatu du eta zinegotziaren sentsibilitatearen eta inplikazioaren termometroa dela ulertzen du ingurumenaren berreskurapenean. Eguzkirentzat gertatu dena oso garrantzitsua da. Horregatik, Eguzkik adierazi du Kontseiluan ez duela gehiago parte hartuko, udalaren jarrera aldatu eta ingurumenaren defentsan proaktiboagoa izan arte.

Zinegotziak erantzun du ez zirela inoiz kalaren berreskurapenaren aurka agertu, eta ildo horretan akordio bat sinatu zela Batzar Nagusietan, eta URA eta EJrekin ere bildu direla, baina oraindik zain daudela.

Eguzkiko ordezkariak bilera utzi du.

2. Osasun eta Ingurumen Saileko aurrekontuak

Zinegotziak bigarren puntua aurkeztu du: 2025. urtearen amaieran onartu ziren eta 2026ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu ziren aurrekontuen aurkezpena.

Osasun eta Ingurumen zuzendariak aurrekontuak aurkeztu ditu.

Orokorrean aurreko urtekoaren berberak direla zehaztu du. Lehen partida osasun publiko eta animalien ongizatea da. Partida garrantzitsua da animalien babesari zuzendutakoa. Kontratu bat dago eta esleipenduna Gipuzkoako Animalien Babeserako elkarte da.

Bigarren partida garrantzitsuena izurriteak kontrolatzeko da. Zerbitzu hori ere esleitura dago.

laz osasun mentalari buruzko kanpaina berri bati ekin genion, eta aurten ere horrekin jarraituko dugu. Zerbitzua AGIPAD-i esleitu zitzaion.

Adikzioak prebenitzeko bi plan ere badira, bata sustantzien adikzioekiko eta bestea teknologiarren menpekotasunarekiko.

2. Aprobación del acta anterior

El concejal solicita que se corrija la fecha de aprobación del protocolo de calidad del aire ya que se indicaba finales del 2026 en vez de finales de 2025.

El representante de Eguzki toma la palabra y muestra su queja en relación a la Cala de Agiti. Recuerda que en la última reunión solicitaron al concejal la defensa de la recuperación de la cala, en las reuniones que se iban a celebrar con URA y Gobierno Vasco. Critica que en menos de 48 horas, en el Pleno municipal, el voto del Concejal fue contrario a las intenciones que manifestó. Critica el cambio de actitud, entendiendo que es un termómetro de la sensibilidad y la implicación del concejal en la recuperación del medio ambiente. Entiende que es muy importante para Eguzki lo que ha ocurrido. Por ello, Eguzki manifiesta que congela la participación en el Consejo hasta que haya un cambio en la actitud municipal y sea más proactiva en la defensa del medio ambiente.

El concejal contesta que en ningún momento se opusieron a la recuperación de la cala y en esa línea se firmó un acuerdo en las JJGG y que incluso se han reunido con URA y GV pero todavía están esperando su respuesta.

El representante de Eguzki abandona la reunión.

2. Presupuestos del Departamento de Salud y Medio Ambiente.

El concejal da entrada al segundo punto, la presentación de los presupuestos que se aprobaron a finales de 2025 y que entraron en vigor el 1 de enero de 2026.

El director de Salud y Medio Ambiente presenta los presupuestos.

Señala que en general son los mismos que los del año pasado. La primera partida es la relativa a la sanidad pública y el bienestar animal. Es una partida importante la dirigida a la protección de los animales. Hay un contrato y el adjudicatario es la asociación protectora de animales de Gipuzkoa.

La segunda partida más importante es para controlar las plagas. Ese servicio también está adjudicado.

El año pasado también comenzamos una campaña nueva relativa a la salud mental, que se continuará este año. Se adjudicó esta campaña a AGIPAD.

También se prevén dos planes de prevención de las adicciones, uno en relación con las adicciones a sustancias y otro en relación con la dependencia tecnológica.

► Osasuna eta Ingurumena

Salud y Medio Ambiente

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Partida txiki bat ere aurreikusi da genero ikuspegirako, adikzioen planarekin lotuta dagoena, eta aurreen ere ekintza batzuk egingo dira ikastetxeetan.

Partida berria aurreikusi da aurreen katu kolonien kudeaketarako.

Bigarren partida Donostiako Udaleko Kontsumitzailearen Informaziorako Bulegoarentzat (KIUB) da. Partida kontsumo arloan prestakuntza batzuk egiteko bideratuko da.

Hirugarren partida Artikutzaarentzat da, Babes bereziko eremu dena. Ingurumen hezkuntza ere kontratu baten bidez kudeatuko da, bisita gidatuak dira normalki. Partidaren barruan ere finka mantentzekoak eta ikerlanak sartzen dira.

Ondoren, zarataren aurkako partidak, zarata kanpaina eta zarata planaren eguneratzea daude. Soinu-oasiak ere identifikatu behar dira, eta hurrengo soinu-mapa estrategikoaren lizitazioa prestatu.

Lurzuro kutsatuetan, amiantoari buruzko ikerketak aurreikusten dira gehienbat, Altzan batez ere.

Jasangarritasunari dagokionez, honako hauek sartzen dira: emisio txikiko eremuak, 55 Pluserako prestakuntza-ikastaroa, eta energia-eraginkortasuneko eta egokitzapeneko ekintzak, hondakinak prebenitzeko ekintzak, besteak beste.

Hondakinen prebentziorako proiektuak ere sartu dira aurrekontuetan.

Beste partida batean sartu dira hiri baratzeak, espezieen babesa etab.

IV kapituluaren dirulaguntzak sartzen dira. Hemen elkarteak ematen zaizkien dirulaguntzak ditugu bai ingurumen elkarteak mantentzeko baita ere proiektuak garatzeko. Bestalde, Cristina Enea Fundazioari ematen zaion dirulaguntza zuzena ere hemen kokatzen da (ingurumen sentsibilizazio lanak egiteko), eta Naturklima Fundazioari ematen zaiona. Bestalde, dirulaguntza lerro bat ere badago komunitate energetikoak bultzatzeko.

Azkenik, inbertsioei buruzko VI. kapituluaren, Artikutza urtegiaren zati bat eraitsi da, Life kantauribaik partzialki finantzatuta. Beste inbertsio-proiektu garrantzitsu bat Altzako Larres ibarreko 4. ITEMa berreskuratzeko obrak dira.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak galdetu du aurreko urtekoarekin alderatuta ea goerarik izan den.

También se ha previsto una pequeña partida para la perspectiva de género, relacionada con el plan de adicciones, y este año también se llevarán a cabo algunas acciones en los centros escolares.

Hay una nueva partida prevista este año para la gestión de las colonias felinas.

La segunda partida es para la Oficina de Información al Consumidor (OMIC) del Ayuntamiento de San Sebastián. La partida se destinará a realizar una serie de formaciones en materia de consumo.

La tercera partida es para Artikutza, que es una Zona de Especial Conservación (ZEC) zona protegida. La educación ambiental también se gestionará mediante un contrato, son visitas guiadas normalmente. La partida incluye también los trabajos de mantenimiento de la finca y para realizar investigaciones.

Después están las partidas contra el ruido, la campaña de ruido y la actualización del plan de ruido. También hay que identificar los oasis sonoros y preparar la licitación del siguiente mapa sonoro estratégico.

En suelos contaminados se prevén principalmente estudios sobre el amianto, sobre todo en Altza.

En sostenibilidad se incluyen las Zonas de bajas emisiones, curso de formación para Plus 55, y acciones en eficiencia energética y en adaptación, entre otros.

También se han incluido en los presupuestos proyectos de prevención de residuos.

Se han incluido en otra partida las huertas urbanas, protección de especies, etc.

El capítulo IV incluye las subvenciones. Aquí tenemos subvenciones a asociaciones tanto para el mantenimiento de asociaciones ambientales como para el desarrollo de proyectos. Por otro lado, también se enmarca la subvención directa a la Fundación Cristina Enea (para labores de sensibilización ambiental) y a la Fundación Naturklima (para impulsar las comunidades energéticas).

Finalmente, en el capítulo VI de inversiones, se encuentra la demolición parcial de la presa de Artikutza, que se realizará con financiación de Life kantauribai. Otro de los proyectos importantes de inversión son las obras de recuperación del ITEM 4, vaguada de Larres, en Altza.

El representante de Ekologistak Martxan pregunta si se ha producido un incremento respecto al año anterior.

Zuzendariak aurrekoaren bera dela dio. Berria den bakarra katu koloniaren kudeaketa dela.

El director comenta que es igual a la anterior, siendo la única novedad la gestión de las colonias felinas.

3. Artikutzako presaren zati bat eraisteko lanen aurrerapena eta kiropteroei buruzko azterlana.

Zinegotziak azaldu du presa eraisteko lanak esleitura daudela, eta hitza eman dio Ingurumen Osasuneko eta Iraunkortasuneko buruari.

Artikutzaren egoera errepasatuta, aipatu da Artikutzako urtegia hamarkadetan egon zela funtzionatu gabe eta bertako faunarentzat oztopo haundia izan dela. TGBan onartu zen erausketa lanak egitea. Baimenak eta dirulaguntza europar bat lortu dira lanak egiteko.

Lanen esleipenduna Moyua enpresa da eta ingurumen jarraipena egiteko lan talde bat osatu da, Proiektu eta Obrak eta Osasun eta Ingurumena sailekin.

Ingurumen jarraipen lana Nafarroako Gobernuari aurkeztu behar zaio eta Goizuetako udalari ordaindu zaio eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.

Nafarroako gobernuari honako hauek aurkeztu behar zaizkio: zaintza plana, hondakin plana, uren kalitate kontrol programa, ezusteko kasuan protokoloa, kronograma bat eta bestetik obrak hasi aurretik kiroptedo eta landareen egoera (kiroptekoak, landarak, muturluzeak, bisoi europarra eta igarabana) aztertu behar da nola dauden jakiteko.

Kronograma doitzea oso lan zaila da, izokinak kontuan hartuta, lanak ekainaren 1etik azaroaren 15era egin behar dira. Halere, muturluzearentzat kritikoa da urtariletik ekainera arteko epea. Saguzarrek apiriletik ekainera kumatzen dute, eta bisoi europarra eta igaraba daudela antzemango balitz udaran ezingo litzateke lanik egin...etab. Funtsean muturluzea kontuan hartuta, oso garrantzitsua da lanak urtebetean egitea.

Hori guztia kontuan hartuta, lanak espezien arabera antolatu dira eta maiatzetik azarora bitartean egingo dira.

Saguzaharrei buruzko lana amaitua dago eta lan hori aurkeztu da. Azterlana EHUKo Joxerra Aihartzak egin du. Lan horren arabera, Artikutza oso aberatsa da saguzarrekiko eta 14 espezie atzeman dira. Espezie horietako batzuk arriskuan daude, adibidez *Myotis Myotis* edo arratoi belarriandia edo koba saguzaharra. Bestalde, presaren tuneletan arratoi belarriandiak presaren tunelak erabiltzen ditu atseden hartzeko, ernaldi garaiaz gain. Hurrengo koloniak 60 kilometroa daude. Badirudi toki garrantzitsua dela migrazio bide horietan.

3. Avance de los trabajos de demolición parcial de la presa de Artikutza y estudio de quirópteros

El concejal explica que están adjudicadas las obras para la demolición de la presa y cede la palabra a la jefa de Salud Ambiental y Sostenibilidad.

Repasando la situación de Artikutza, se menciona que el embalse de Artikutza estuvo sin funcionar durante décadas y ha supuesto un gran obstáculo para la fauna de Artikutza. El Proyecto de Obra está aprobado en Junta de Gobierno Local. Se han obtenido permisos y una subvención europea para la realización de las obras.

La adjudicataria de los trabajos es la empresa Moyua y se ha formado un grupo de trabajo para el seguimiento ambiental, con el departamento de Proyectos y Obras y con el de Salud y Medio Ambiente.

El plan de seguimiento ambiental debe presentarse al Gobierno de Navarra, y se ha abonado el impuesto de construcciones, instalaciones y obras al ayuntamiento de Goizueta.

Hay que presentar al Gobierno de Navarra el plan de vigilancia de las obras, el plan de residuos, el programa de control de calidad de las aguas, el protocolo en caso de imprevistos, un cronograma, y analizar antes del inicio de las obras el estado de los quirópteros y de las plantas (quirópteros, plantas, desmán, visón europeo y nutria) para conocer su estado.

El ajuste del cronograma es una tarea muy complicada, teniendo en cuenta los salmónidos, los trabajos deben realizarse del 1 de junio al 15 de noviembre. Sin embargo, para el desmán es crítico el plazo de enero a junio. Los murciélagos crían de abril a junio, y si se detectara que hay visón europeo y nutria en verano no se podría trabajar... etc. Fundamentalmente teniendo en cuenta el desmán, es muy importante realizar las obras en un año.

Teniendo en cuenta todo eso, los trabajos se han organizado por especies y se desarrollarán entre mayo y noviembre.

El trabajo sobre los murciélagos está terminado y se presenta el mismo. El estudio ha sido realizado por Joxerra Aihartza, de EHU. Según estos trabajos, Artikutza es muy rico en murciélagos y se han detectado hasta 14 especies. Algunas de estas especies están en peligro, como *Myotis Myotis* o murciélago ratonero grande o murciélago de cueva. Por otro lado, se ha observado que murciélago ratonero grande utiliza los túneles de la presa para descansar y durante la gestación. Las siguientes colonias están a 60 km. Parece ser un punto importante en esas rutas migratorias.

Azterlanean ikusi da presaren paretetako tunelak uste zena baino interesgarriagoak direla hainbat saguzarrentzat.

2 tunel nagusi daude presaren barruan eta baita aireztatzeko hodiak ere. Ikerketan konturatu dira planoetan agertzen ez diren bi ganbara daudela eta hor ferra-saguzar txikien kolonia handiak daude.

Lan horren ondorioz obretan egiteko zenbat neurri proposatu dira, poblazio horiek babesteko. Adibidez, gaez zuloak blokeatzea, denak kanpoan egoten direnean; tuneletako temperatura eta iluntasun baldintzak babestea paretak itxtean; edo ganbarak egokitzea eta horien artean tunelak egitea saguzaharrek alde batetik bestera pasatzeko aukera izan dezaten.

5 urte igaro ondoren populazioaren jarraipena egin beharko litzateke bilakaera aztertzeko.

Infografia ere aurkeztu da presa nola geratuko den ikusteko.

Horretaz gain, beste lan batzuk egiten ari direla eta horiek aurkeztu ditu Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuburuak.

Uholdeak ekiditeko birnaturalizazio lanei dagokionez, ibai-ekosistema Next Generation dirulaguntzen baitan Miramongo parkean 2 ekintza amaitu dira, bi urmael txiki egin direlarik. Ibaetako haltzadia berreskuratzeko lanak otsaila bukaerarako amaituta egongo dira. Soberako diruarekin Luis Villasante parkean, (Aieten) eta Ollola errekan (Barkaiztegin) landare inbaditzailek eta hondakinak kentzeko lanak egingo dira.

Zerbitzuburuak konpromisoa hartu du aurkezpenak bidaltzeko.

Zinegotziak adierazi du egokitzen jotzen dela Artikutzara bisita bat antolatzea. Horregatik, Kontseiluari obra ikusteko gonbidapena egin dio, maiatza edo ekaina aldera.

Seobirdlife ordezkariek adierazi duenez, bertan izan da eta haiz-enara ikusi duela, obra egingo den lekuan, hain zuzen ere. Proposatzen den bisita ugalketa-hilabeteetan izango litzateke (udaberrian, udaren hasieran), eta, beraz, ikusteko aukera izango dugu.

Zerbitzuburuak erantzun du alternatibak aztertuko direla, baina, hasiera batean, aurreikusitako protokoloarekin ez dela aurreikusten eskotadura irailera arte hastea eta beti ere *Myotis Myotis* guztiek alde egin badute.

En el estudio se ha observado que los túneles de las paredes de la presa son más interesantes para varios especies de murciélagos de lo que se pensaba.

Existen 2 túneles principales en el interior de la presa y tubos de aireación. En el estudio se han dado cuenta de que hay dos cámaras que no aparecen en los planos y ahí hay grandes colonias de murciélagos de herradura pequeños.

Como consecuencia de este trabajo se han propuesto un número de medidas a realizar en las obras para conseguir la protección de esas poblaciones. Por ejemplo, bloquear los agujeros durante la noche cuando todos los ejemplares están fuera, proteger las condiciones de temperatura y oscuridad de los túneles al cerrar las paredes, o acondicionar las cámaras y hacer un túnel entre ellas para que los murciélagos pasen de un lado a otro.

Después de 5 años habría que hacer un seguimiento de la población para ver su evolución.

También se presenta la infografía de cómo va a quedar en el futuro.

Además se están realizando otros trabajos que son presentados por la jefa del Servicio de Salud y Sostenibilidad.

En cuanto a los trabajos de renaturalización para evitar inundaciones, dentro de las subvenciones Next Generation, ecosistema fluvial, se han finalizado 2 acciones en el parque de Miramon, donde se han realizado dos pequeñas lagunas. Los trabajos de recuperación de la aliseda de Ibaeta finalizarán a finales de febrero. Con el presupuesto sobrante se realizarán trabajos de retirada de residuos y plantas invasoras en el parque Luis Villasante, en Aiete y en la regata Ollola, en Barkaiztegi.

La jefa de Servicio se compromete a remitir las presentaciones.

El concejal comenta que se considera oportuno organizar una visita a Artikutza por lo que traslada la invitación al Consejo para ver la obra, hacia mayo o junio.

El representante de Seobirdlife indica que ya ha estado en el lugar donde ha detectado la presencia del avión roquero, justo donde se va a realizar la obra. La visita que se propone sería justo en los meses de reproducción (primavera, comienzos de verano), por lo que tendremos la oportunidad de verlo.

La jefa del Servicio responde que se estudiarán las alternativas, pero que en principio con el protocolo previsto no se prevé comenzar con la escotadura hasta septiembre, siempre que hayan abandonado el lugar todos los *Myotis*

Myotis.

Zerbitzuburuak aipatu du kategorizazio bat egin dela. Muturluzea, bere egoeraren larritasunagatik, lehenetsitako espezieztat hartuko da. Horregatik komeni da lanak urtebetean egitea. Beste espezieztat ere ahal den kalte gutxiena egiten saiatuko da. Betiere, jakitun diren iritziak oso kontuan hartuta. Adibidez, muturluzean inguruko jakitunak, EHUKo eta Aranzadiko jakitunak, etab.

La jefa de Servicio menciona que se ha realizado una categorización. Se considerará al desmán, por la gravedad de su situación, como especie más priorizada. Por ello es conveniente realizar los trabajos en un año. También se procurará hacer el menor daño posible para otras especies, y siempre teniendo muy en cuenta las opiniones de los más expertos. Por ejemplo, expertos en desmanes, expertos de EHU, Aranzadi, etc.

4. Hondakinak: Ehungintza, TEEH eta tamaina handiko hondakinen kudeaketaren mapa eta erronkak

Zinegotziak Ane Salaberria eta Aitziber Zubillaga de Emaus aurkeztu ditu, bertaratzeagatik eskerrak emanez. Ehunhondakinen, TEEH hondakinen (Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak) eta hondakin handien (altzariak eta bestelako tresnak barne) mapa eta kudeaketa-erronkak aurkeztuko dituzte.

4. Residuos: Mapa y retos de la gestión de textiles, RAEE y voluminosos

El concejal presenta a Ane Salaberria y a Aitziber Zubillaga de Emaus, agradeciendo su presencia. Presentarán el mapa y retos de gestión de residuos textiles, RAEEs (Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos) y voluminosos (que incluyen muebles y otros enseres).

Emaus fundazioak bi lan ardatz nagusi ditu, lehenengo inklusioa eta gero ingurumena. Lan guztia ingurumenean egiten da baina helburua gizarteratze prozesuak garatzea da.

La fundación Emaus tiene dos ejes principales de trabajo, primero la inclusión y después el medio ambiente. Todo el trabajo se realiza en el medio ambiente, pero el objetivo es desarrollar procesos de inclusión social.

Lantzen diren hiru fluxuen informazioa azalduko dute: ehunak, gailu elektriko / elektronikoenak eta hondakin haundiak dira.

Explicarán la información de los tres flujos en los que se trabaja: textiles, aparatos eléctricos/electrónicos y voluminosos.

Gero eta gehiago kontsumitzen da eta ondorioz gero eta gehiago ekoiztu. Ekonomia zirkularra ez da errealitate bat. Balio kate osoan zerbait egiten saiatzen dira. Gehienbat Gipuzkoan egiten dute lan. 365 pertsona dira Fundazioan, eta horietatik 100 bat pertsona ekonomia zirkularrean lanean ari dira. Besteak gai hauetan aritzen dira: gizarte zerbitzuak, laguntza, eta abar.

Cada vez se consume más y por tanto se produce más. La economía circular no es una realidad. Intentan trabajar en toda la cadena de valor. Trabajan mayoritariamente en Gipuzkoa. La Fundación cuenta con 365 personas, de las cuales unas 100 trabajan en la economía circular. Los demás trabajan en temas de servicios sociales, asistencia, etc.

Euskadi mailan 4 erakunde dira ekonomia sozialean lanean ari direnak:

A nivel de Euskadi son 4 las entidades que trabajan en la economía social:

- Emaus Bilbao
- Emaus kooperatiba, Belartzakoa.
- Koopera
- Emaus Gipuzkoa

- Emaus Bilbao
- Cooperativa Emaus, de Belartza.
- Koopera
- Emaus Gipuzkoa

EEHSA (ekoizlearen erantzukizun hedatuaren sistema kolektiboa) sistema eratzen ari da ehungintza eta tamaina handiekiko hondakinentzat eta aldaketa bat ekarriko du hondakin horien bizi amaieraren kudeaketaren finantzaketan.

El sistema «responsabilidad ampliada» del productor SCRAP de textil y voluminoso se están constituyendo y supondrá un cambio en la financiación de la gestión del fin de vida de dichos residuos.

Legeak dio kontratu publikoetan horrelako erakundeentzako erreserba bat egon behar dela, baina hori FFCC bezalako enpresa handiak daude, hondakinen birziklapenean zentratuago daudenak, kudeaketa horretan interesa dutenak.

La ley dice que en los contratos públicos tiene que haber una reserva para este tipo de entidades, pero ahí hay grandes empresas como FCC que están más centradas en el reciclaje de residuos, interesadas en dicha gestión.

Hondakinen hierarkian, lehenik eta behin, sortzen den

En la jerarquía de residuos lo primero es la reducción de la

hondakin kantitatea murriztu behar da. Ondoren, berrerabilpena eta berrerabili ezin dena birziklatzeko erabiliko da. Azkenik, hasierako balorizazioa egongo litzateke, eta azken fase gisa, ezabatzea.

cantidad de residuos que se genera. Después la reutilización y lo que no se pueda reutilizar, se destinaría al reciclaje. Por último estarían, primero, la valorización y como fase final, la eliminación.

Hiru fluxuak aztertuta bolu handiko hondakinen inpaktuaz mintzatu dira lehenik.

Analizando los tres flujos hablan primero del impacto de los voluminosos

Ehungintzari dagokionez, duen inpaktua ez da bakarrik ingurumenean, baita gizartearekiko ere, arropa hauek egiten diren lurraldeetan jende asko lan baldintza txarretan egoten delako.

En cuanto a la industria textil, su impacto no es sólo en el medio ambiente, sino también en la sociedad, ya que en los territorios donde se confeccionan estas prendas hay muchas personas en malas condiciones laborales.

Gailu elektriko eta elektronikoen inguruan, 2030rako aurreikuspenak ere aurkeztu dituzte. Material baliotsua dute eta azken urteetan oso kudeaketa egituratua dute.

Respecto a los aparatos eléctricos y electrónicos, también se han presentado las previsiones para 2030. Tienen un material valioso y tienen una gestión muy estructurada en los últimos años.

Tamaina handiko hondakinen arloan aldiz, % 0,8 bakarrik berrerabiltzen da. Eta hor daukagu erronka garrantzitsua. Kalean uzten denak edo garbigunera eramaten denak ez dauka irtenbide handirik berrerabiltzerako.

En el caso de los residuos voluminosos sólo se reutiliza el 0,8%. Y ahí existe el reto más importante. Lo que se deja en la calle o se lleva al garbigne no tiene grandes soluciones para la reutilización.

Araudi aldetik kontuan izan behar da Gipuzkoako Hiri hondakinak kudeatzeko plan orokorra (GHHKPO) eta 7/2022 legea apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. Legean prebentzioa eta berrerabilpena gakoak dira. GHHKPOk ere garrantzitsua bada, baina bere garrantzia du hondakin politiken barruan gizarte dimensio bat txertatzen duelako eta tokiko ekonomia bultzatzen duten aktibitateak ere kontuan hartzen dituelako. Berrerabilpena hondakinen kudeaketaren hierarkian bigarren postuan dago eta garrantzitsua da oso plan honetan. Legeak baino asmo handiagoko helburuak ditu. 2030erako % 70 da helburu bai berrerabiltzean bai birziklapenean ere. 7/2022 legeak 2035rako % 55aren helburua zuen, eta % 5 berrerabiltzerako. Helburu horiek lortzeko gakoa gaikako bilketa da.

Reglamentariamente hay que tener en cuenta el Plan General de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (PIGRUG) y la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular. La prevención y la reutilización en la ley sí son los puntos más importantes. También el PIGRUG, pero sobre todo tiene un punto importante al incluir una dimensión social dentro de las políticas de residuos y considerar también las actividades que impulsan la economía local. La reutilización ocupa el segundo lugar en la jerarquía de la gestión de residuos y es muy importante en este plan. Tiene objetivos más ambiciosos que los de la ley. Para el 2030 el objetivo es el 70% del 2030 para la reutilización como para el reciclaje. La ley 7/2022 tenía un objetivo del 55% para 2025 y un 5% para la reutilización. La clave para conseguir estos objetivos es la recogida selectiva.

Beste puntu garrantzitsua SCRAP bezala ezagutzen den Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboa da. Behartzen du bai ehungintzarako bai tamaina handikoetarako. Honek guztiz aldatuko du bai finantzaketa, kudeaketa eta erronka berriak izango ditugu. Azken finean, ekoizleek merkatuan jartzen dituzten produktuek hondakin bilakatzen direnean, horrek sortzen duen kudeaketa hori guztia finantzatu beharko dute.

Otro punto importante es el Sistema Colectivo de Responsabilidad Ampliada del Productor conocido como SCRAP. Obliga tanto para textiles como para los residuos de gran tamaño. Esto cambiará la financiación y la gestión con lo que habrá nuevos retos. En definitiva, cuando los productos que los productores ponen en el mercado se convierten en residuos, deberán financiar toda esa gestión que se genera.

Hondakinen kudeaketarako mapa aurkeztu dute.

Presentan un mapa para la gestión de residuos.

Bilketari dagokionez, gaikakoa izatea da gakoa. Gaur egun etxez etxekoa egiten da Donostian, altzarietarako. Emausek lehiaketa baten ondorioz zerbitzu hori eskaintzen du Donostiako hiru auzotan. Kontratuan ere sartzen zen kaleko bilketa. Aurten berriro aterako da kontratua, baina badirudi aterako dela bakarrik etxez etxeko bilketa lau

En cuanto a la recogida, la clave es que sea selectiva. Hoy en día se hace recogida a domicilio en San Sebastián para muebles. Emaus ofrece este servicio a raíz de un concurso en tres barrios de San Sebastián. En el contrato también entraba la recogida en la calle. Este año vuelve a salir el contrato, pero parece que solo saldrá la recogida a domicilio

auzotan (Intxaurren, Altza eta Loiola eta badirudi gehituko zaiola Parte Zaharra). Etxez etxekoan berrerabilpena bermatuagoa dago, ez aldiz bidean egiten den bilketan. Altxarien SCRAP bat sortzea behartzen duen lege bat egon arren, altxarien sorrera atzeratzen ari da.

Ehungaiei dagokionez, bere dendetan ere jasotzen du Emausek. Hor berreskuratze tasa altua da. Kaleko edukiontzi zurietan jasotzen dena, mankomunitateak esleitzen duen kontratu baten bidez egiten da. Donostian Koopera da esleipenduna. Horko berrerabilpen tasa ez da oso altua.

Gailu elektriko eta elektronikoen kasuan Emausek merkataritza federazioarekin lan egiten du, hitzarmen baten bidez. Dendetatik deitzen diote Emausi biltzera joateko.

Ehungaiak Errenteriako tratamendu planta batera doaz. Tratamendua Emaus eta Koopera arteko UTEak darama. Urnietan beste planta bat dago, gailu elektriko, elektronikoentzako eta hondakin haundientzat. Azken hondakin horien kasuan, Emausek bakarrik kudeatzen ditu, Kooperak bertan behera utzi baitu frakzio horien kudeaketa.

Arazo handiena hala ere finantzaketa da, dekretua ere berandu dabilako.

Irteera salmenta da, dendetan. Gipuzkoan 10 denda daude. Ehungaietan jasotakoaren % 15 bakarrik joaten da dendetara. Ez dira gai gehiago errekuaratu eta saltzeko. Soberan dagoena Bizkaia joaten da eta ehuneko handi batean esportatzen.

Zubietan GFA ehunen tratamendurako zentro bat eraikitzen ari da. Maiatzerako eraikiko da. Kudeaketa lehiaketara aterako da. Koopera eta Emaus aurkeztuko dira ABEEan. Asmoa da berrerabilpena tasa igotzea eta ahal den guztia Gipuzkoan gertatzea.

Industriaren kasuan eta gailu elektriko eta elektronikoei dagokionez, etorkizuna osagaiak banatzea eta berrerabilpena izango da.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak berrerabilpenaren ehunekoei buruz galdetu du. Emauseko ordezkariak erantzun dio fluxuaren arabera dela. Ehungintzan Estatuko tasarik altuena badugu ere, ehungintzako produktuen gaikako bilketa indartu behar da. Gaur egun sortzen den ehungintzaren % 25 baino ez da jasotzen ari.

Hori gehitzeko planik badagoen galdetuta, erantzun du kate osoan egin behar dela lana, kontzientziazioetik hasita, edukiontziak gehitu eta hobetu, kontratu publikoak hobeto landu, tratamendu planta egokiak, salmenta puntuak hobetu...SCRAP sortu behar da. Tamaina handikoetan gakoak da udalek auzoak gehitu behar dituzte gaikako hondakinen bilketa handitzeko, Urnietako zentroaren

en cuatro barrios (Intxaurren, Altza y Loiola y parece que se sumará la Parte Vieja). Con la recogida a domicilio está más garantizada la reutilización, no así en la recogida vial. Aunque exista una ley que obliga la creación de un SCRAP de mobiliario, su creación se está retrasando.

En cuanto a los textiles, Emaus también recoge esta fracción en sus tiendas. Ahí la tasa de recuperación es alta. Lo que se recoge en los contenedores blancos de la calle se hace mediante un contrato que adjudica la mancomunidad. En Donostia Koopera es la adjudicataria. La tasa de reutilización sin embargo no es muy elevada.

En el caso de los aparatos eléctricos y electrónicos, Emaus trabaja con la federación comercial a través de un convenio. Llamen de las tiendas a Emaus para la recogida.

Los textiles se llevan a una planta de tratamiento de Errenteria. El tratamiento lo lleva la UTE entre Emaus y Koopera. En Urnieta existe otra planta para aparatos eléctricos, electrónicos y de voluminoso. En el caso de estos últimos residuos, sólo son gestionados por Emaus, ya que Koopera ha desistido llevar a cabo la gestión de dichas fracciones.

El mayor problema, sin embargo, es la financiación, porque el decreto también va tarde.

La salida es la venta, en las tiendas. En Gipuzkoa hay 10 tiendas. Solo el 15% de lo que se recoge en textiles está disponible en las tiendas. No son capaces de recuperar y vender más. Lo que sobra se lleva a Bizkaia y en un alto porcentaje a la exportación.

En Zubietan la DFG está construyendo un centro de tratamiento de textiles. Se construirá para mayo. Su gestión será sacada a concurso. Se presentarán Koopera y Emaus en UTE. La idea es subir la tasa de reutilización y que todo lo que se pueda se quede en Gipuzkoa.

En el caso de la industria y en relación a los dispositivos eléctricos y electrónicos, el futuro será redistribuir y reutilizar los componentes.

El representante de Ekologistak Martxan pregunta por los porcentajes de reutilización. La representante de Emaus le responde que depende del flujo. Si bien tenemos la tasa más alta del Estado en el sector textil, hay que reforzar la recogida selectiva de productos textiles. Solo se está recogiendo el 25% de los residuos textiles que se recogen en la actualidad.

A la pregunta de si hay planes para aumentarlo, responde que hay que trabajar en toda la cadena, empezando por la concienciación, aumentando y mejorando contenedores, trabajando mejor los contratos públicos, mejorando las plantas de tratamiento adecuadas, los puntos de venta... se tiene que crear el SCRAP. En lo que se refiere a residuos voluminosos la clave está en que los ayuntamientos tienen

bilakaera ere ikusi beharko da.

que añadir barrios aumentando la recogida selectiva de residuos. Habrá que ver también cómo evoluciona el centro de Urnieta.

Gailu elektriko eta elektronikoei dagokionez, dendetan jasotzea hobetu behar da, denda gehiago gehitzea eta pentsatu beharko da ere zer egin online erosketekin.

En cuanto a los aparatos eléctricos y electrónicos, hay que mejorar la recepción en las tiendas, aumentar el número de tiendas y pensar qué hacer con las compras online.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak informazio kanpainei buruzko garrantziaz mintzatu da. Emauseko ordezkariak erantzun dio Donostiako Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurilaritza eta Ihobe horretan lanean ari direla, Emausekin batera. Legeak ere konponketa eskubidea arautu dute, eta horren ondorioz lanbide batzuk errekeratu beharko dira. Emausek hau ibilbide soziolaboralekin batera egiten du.

El representante de Ekologistak Martxan destaca la importancia de las campañas informativas. El representante de Emaus le responde que el Ayuntamiento de San Sebastián, las Diputaciones Forales, el Gobierno Vasco e Ihobe están trabajando en ello, junto a Emaús. Que la ley también ha regulado el derecho de reparación, lo que obligará a la recuperación de algunas profesiones. Emaus compagina esto con sus trayectorias sociolaborales.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak dirulaguntza publikoak proposatu ditu lanbide batzuk bermatzeko, eta lokalek zenbat auzotan tasa txikiagoak izatea.

El representante de Ekologistak Martxan propone subvenciones públicas para garantizar algunas profesiones, menores tasas en cuanto a locales...

Emauseko ordezkariak esan du Bizkaiko Foru Aldundiak bonuak eta badietela. SCRAPek jasotako dirulaguntzak kontzientziatziora bideratzea eskatzen du. Zentzu horretan zenbait erakunderekin ari dira lanean, baina asko dago egiteko.

El representante de Emaus comunica que la Diputación Foral de Bizkaia tiene bonos. El SCRAP pide que las subvenciones recibidas se destinen a la concienciación. En ese sentido se está trabajando con diferentes instituciones, pero queda mucho por hacer.

Kalapieko ordezkariak esan du orain dela bost urte eskaera bat egin zutela bizikletak bakoitzak konpontzeko lokal bat eskatzeko. Proiektua azaldu du: kideak direnek kudeatzen dute, bizikletak jasotzen dira, konpontzen dira eta berrerabilpen bat ematen zaie. Beste herri batzuetan martxan dago: Tolosa, Irun... Lokalaren eskaera egin dute eta hutsik dagoen lokal bat egongo balitz erabilera hau emateko hartuko lukete proiektu hau aurrera eramateko.

El representante de Kalapie recuerda que hace cinco años hicieron una petición solicitando un local de auto-reparación de bicicletas. Explica el proyecto. Lo gestionan los socios, se recogen las bicicletas, las arreglan y se les da una reutilización. En otras localidades ya está en marcha, Tolosa, Irun... Hacen una petición de local y dicen que si hubiera algún local vacío lo tomarían para darle este uso para llevar adelante este proyecto.

Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuburuak erantzun dio lokalak kudeatzen dituen sailera bidalita dagoela, horrek aztertu zain.

La jefa del Servicio de Salud y Sostenibilidad le explica que se ha pasado la solicitud al departamento que gestiona los locales a la espera de que lo analice.

Kalapiekoak azaldu du iaz egin zutela eskaera puntual bat, Valentziara bizikletak bidali aurretik Aurten beste kanpaina puntual bat egin dutela Harrerakoekin. Martuteneko lokalaren aukera izan zutela azaltzen du, baina baimena burokrasian galdu zela.

Kalapie explica que el año pasado hicieron una petición puntual antes de enviar las bicicletas a Valencia. Que este año han realizado otra campaña puntual. Explica que tuvieron la oportunidad del local de Martutene, pero que el permiso se perdió en la burocracia.

Zerbitzuburuak azaldu du gauza egonkorra bada zaildu egiten dela, baina gaur egun lanean ari direla

La jefa de Servicio explica que si la cosa es estable se complica pero están trabajando.

Zinegotziak ere gaia begiratzeko konpromisoa adierazi du. Konturatu ziren eskola desberdinetan egindako proiektuetan ikasle askok ez dutela bizikletarik. Hori dela eta kolaborazioak begiratzen ari dira.

El concejal también expresa su compromiso de mirar el tema. Que se dieron cuenta de que en los proyectos realizados en diferentes escuelas muchos alumnos no tienen bicicletas. Por ello, se está estudiando como colaborar para solucionar la situación.

Emausek ere adierazi dio Donostian lekuri izanda utziko lieketela, baina Donostian ez dutela lekuri oraingoz. Donostiatik kanpo Donostiatik kanpo, Irun eta Arrasateko zentroetan tokia izango lukete. Herrietan konponketa lanak

Emaus también le indica que si tuvieran sitio en San Sebastián les dejaría, pero que en San Sebastián no tienen sitio de momento. Fuera de San Sebastián tendrían espacio en sus centros de Irun y Arrasate. Se están trabajando

egiten ari direnekin lankidetzatza ildoak lantzen ari dira.

líneas de colaboración con quienes están realizando reparaciones en la localidad.

Aranzadiko ordezkariak proposatu du errumaniar taldeak kobrea berreskuratzeke lanak egiten ari direla eta agian lan horiek egiteko berrasma daitezkeela, oso langileak eta profesional onak direlako.

El representante de Aranzadi indica que grupos de personas de Rumanía ya están haciendo labores de recuperación de cobre y que a lo mejor se pueden redirigir estas actuaciones a la recuperación de materiales ya que son personas trabajadoras y en muchos casos buenos profesionales.

Emauseko ordezkariak erantzun dio gizarteratzea Fundazioak Gipuzkoan duen lanaren zati garrantzitsua dela. Hor lehen pausoa gizarte zerbitzuak direla, zaurgarritasun egoeran dagoen jendea identifikatuta, balorazioa eginez, laguntzak bideratuz, formazioa emanez eta gizarteratze postuetan (momentu honetan 54) sartuz. Helburua lanean hastea da, bai Emausekin edo kanpoan. Donostiako udala ere zentzu horretan lanean ari da eta Emaus laguntzen ari da lan horretan. Oso lan konplexua da.

El representante de Emaus le responde que la inserción social es una parte importante del trabajo de la fundación en Gipuzkoa. Ahí el primer paso son los servicios sociales, identificando a las personas en situación de vulnerabilidad, realizando una valoración, canalizando ayudas, dando formación y entrando en puestos de inserción (en este momento 54). El objetivo es comenzar a trabajar, tanto con Emaus como fuera. El ayuntamiento de San Sebastián también está trabajando en ese sentido y Emaus está colaborando en esa labor. Es un trabajo muy complejo.

5. Galde-eskeak

5. Ruegos y preguntas

Zinegotziak Agitiren gaiari buruz hitz egin nahi duela adierazl du, gaia nola dagoen azaltzeko.

El concejal manifiesta su deseo de hablar del tema de Agiti para explicar cómo está el tema

Zinegotziak hitzez hitz irakurri du EH Bilduk Udalbatzan aurkeztutako kontrol mozioaren inguruan emandako erantzuna.

El concejal lee literalmente su respuesta en relación con la moción de control presentada en el Pleno Municipal por EH Bildu.

Espedientearen egoeraren eta Udaleko sailen barruko ibilbidearen berri ematen da.

Se informa del estado del expediente y el recorrido interno dentro de los departamentos del Ayuntamiento.

Adierazi duenez, Bilbon bilera bat izan zuten Kosta Zuzendaritzarekin, URArekin eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Portu Sailarekin zuzendariekin.

Señala que asistieron a una reunión en Bilbao con URA, Dirección de Costas, y el departamento de Medio Ambiente y el departamento de Puertos del GV.

Zuzendaria atsekabetuta dago Eguzkiko ordezkaria ez dagoelako, baina gogorarazi du administrazioak indarrean dagoen araudia errespetatu behar duela.

El director manifiesta su tristeza por la ausencia del representante de Eguzki pero recuerda la obligación de la administración de respetar la normativa vigente.

Aranzadiko ordezkariak hondartzen ordenantzen aldaketari buruzko informazioa eskatu du. Halaber, gogorarazi du hondartzei buruzko ordenantza aldatu egin zela, hondartzan bafleak erabiltzeko debekua jasota.

El representante de Aranzadi solicita información de la modificación de la ordenanza de playas. Recuerda también que la ordenanza de playas fue modificada recogiendo la prohibición de utilización de bafles en la playa.

Zinegotziak erantzun dio zalantza asko daudela txakurren gaia hondartzetara eramango ote den, aurkeztutako alegazioak ikusita.

El concejal le contesta que hay muchas dudas de si se va a llevar el tema de los perros en las playas para adelante a la vista de las alegaciones presentadas.

PPko ordezkariak adierazi du ez dagoela ados aurreikusitako aldaketarekin, garbiketa arazoak ekar ditzakeelako.

La representante del PP manifiesta que no está de acuerdo con la modificación prevista ya que puede traer problemas de limpieza.

Seobirdlife ko ordezkariak Arabako Parkeko jolas gunearen gaia planteatu du, metrakilatoan zeharraldatutako egitura batekin egina dagoena. Zuhaitz asko dituen eremua denez,

El representante de Seobirdlife plantea el tema de la zona de juegos del Parque de Araba realizada con una estructura translúcida en metacrilato. Se trata de una zona con muchos

egitura hori arriskutsua izango litzateke zuhaitzentzat.

árboles por lo que esa estructura sería peligrosa para las aves.

Zinegotziak Juantxo Marrerori galdetzeko konpromisoa hartu du, gaia ezagutzen ez duelako.

El concejal se compromete a preguntar a Juantxo Marrero ya que desconoce el tema.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak Klima 2050 Planari buruz galdetu du. Hasiera batean, bi urteko txosten bat egitea zen asmoa, eta ea egin diren galdetu du.

El representante de Ekologistak Martxan pregunta por el Plan Klima 2050. En principio la idea era hacer un informe bianual y pregunta si se han hecho.

Ingurumen osasunaren eta iraunkortasunaren zerbitzuburuak adierazi du printzipioz ez dela egingo. Klima eta Energia Plana lantzen ari dira, eta udalak nahitaez egin behar du, trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko 1/2024 Legeak jasotzen duen bezala. Abian dauden plan guztiak berrikusi dira, baita diagnostiko bat ere, eta Ekintza Plana egiten ari dira. Aurten onartuko dela aurreikusten da.

La jefa de Servicio de salud ambiental y sostenibilidad manifiesta que en principio no se va a hacer. Se está trabajando en el Plan Clima y Energía, que es obligatorio para el ayuntamiento elaborar, tal y como recoge la Le 1/2024 de de transición energética y cambio climático. Se ha hecho un repaso de todos los planes en marcha, un diagnóstico y se está elaborando el Plan de Acción. Se prevé que se aprobará este año.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak ere zuhaitzei buruz galdetu du, eta Easo eta Aldamar kaleetan zuhaitzik ez egotea kritikatu du.

El representante de Ekologistak Martxan también pregunta por el tema del arbolado y critica la falta de árboles tanto en la calle Easo y en la calle Aldamar.

Zinegotziak erantzun dio ez duela informaziorik Aldamar kaleari buruz. Loreontziei dagokienez, urbanizatzeko arduraduna ETS da, alkatetzan aurkeztutako proiektua, eta, hasiera batean, behin-behinekoak dira, neurri handixeagora iristeko.

El concejal le contesta que no tiene información en relación a la calle Aldamar. Respecto a las jardineras, el responsable de urbanizar es ETS, proyecto presentado en alcaldía y en un principio son provisionales a que llegue algo de mayor porte.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak zuhaitzak berritzeko eskatu du.

El representante de Ekologistak Martxan solicita que se repongan los árboles.

Kalapieko ordezkariak berdegune gehiago ere eskatu du.

El representante de Kalapie solicita también más espacio verde.

Aranzadiko ordezkariak adierazi du Donostian argi gutxi dagoela gauetz. Elkarrekin taldeko ordezkariak adierazi du, halaber, bere garaian Donostiako argiztapenaren azterketa eskatu zutela, argi-kutsadura garrantzitsua delako eta zerua ikusteko ondare garrantzitsua galtzen ari garelako. Gaia sakon aztertzeke eskatu du.

El representante de Aranzadi señala que en Donostia hay poca luz por la noche. La representante del Elkarrekin también señala que solicitaron en su día un análisis de la iluminación en Donostia porque la contaminación lumínica es importante y estamos perdiendo un patrimonio importante como es el de ver el cielo. Solicita un análisis en profundidad del tema.

Zinegotziak adierazi du horren gainean daudela, segurtasunaren gaiarekin ere zerikusia duela eta gaia hiri-mantentzearekin aipatu duela. Europako araudia betetzen ari dela, baina gai serioa dela.

El concejal señala que están encima de ello, que también tiene que ver con el tema de seguridad y que ha comentado el tema con mantenimiento urbano. Que se está cumpliendo la normativa europea pero que es un tema serio.

Aztiko ordezkariak egindako aurkezpena eskertu du. Bestalde, gogoratu autokritika pixka bat egin behar dugula, askotan ez baitugu ezagutzen hondakinak non bota. Bestalde, ehunei dagokienez, aipatu du arazoa hondakinen sorrera dela batez ere, arropa gehiegi eta iraunkortasun gutxiak erosten ditugula.

El representante de Azti agradece la presentación hecha. Por otra parte recuerda que debemos hacer un poco de autocritica ya que muchas veces desconocemos dónde echar los residuos. Por otra parte respecto a los textiles menciona que el problema es sobre todo la generación de residuos, compramos demasiada ropa y de poca durabilidad.

Zuhaitzei dagokienez, Salvador Rueda Miramarren 2026ko

► Osasuna eta Ingurumena

Salud y Medio Ambiente

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

urtarrilean hiri-ekologiari buruz emandako hitzaldi bati En cuanto al arbolado, recomienda una conferencia de
buruzko saio bat gomendatu du. Salvador Rueda en Miramar sobre ecología urbana, en
enero de 2026.

Esteka honetan dago:

<https://www.youtube.com/watch?v=rrzkZVcQtNE>.
Hurrengoan ikustea eta komentatzea proposatu du.

Se encuentra en el siguiente enlace:
<https://www.youtube.com/watch?v=rrzkZVcQtNE>. Propone
verlo y comentarlo en la siguiente.

Elkarrekin-eko ordezkariaren ustez, interesgarria da El representante de Elkarrekin considera interesante visitar
Emauseko instalazioak bisitatzea. las instalaciones de Emaus.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak dio aire kalitate El representante de Ekologistak Martxan informa que se
kontrolak egiten ari direla eta aurkeztuko dituztela. están haciendo controles de calidad de aire y que los
presentarán.

Zinegotziak hurrengo bilera maiatzerako proposatu du. El concejal proponer el siguiente Consejo para mayo.